

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Inguruko dendekin egingo dugunez lan, haien bitartez erakarriko ditugu bezeroak.



Gazteentzat zaila izaten da askotan lan bila hastea, horregatik gure aplikazioa lagungarria egingo zaie. Hala ere, gure aplikazioaren berri emateko dendekin hitz egingo genuke.

Enpresek gure aplikazioa erabiltzen dutela erakusteko paperen bat jarriko lukete dendan. Dendek leihoan itsatsita izango lukete gure aplikazioaren irudia. Horrela, lan bila dabiltzan gazteek irudia ikustean gure aplikazio bidez denda horretan lanean hasteko aukera izango dutela jakingo dute.

Aplikazio bat denez, autozerbitzuz funtzionatzen du baina bezeroren batek arazoren bat izanez gero aditu batekin kontaktatzeko aukera izango luke. Beraz, gure harremana ez da zuzena izango baina zalantzak erantzuteko aholkulari bat izango dugu.

